

KONTROL MOZIOA

27 poligonoko mugikortasuna dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2026ko otsailaren 16ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, 27 zenbakiarekin ezagutzen den industrialdearen garapen industrial handia garatzen hasi zen, Martutene auzoan.

Industrialdera sarrera ematen duen zubia 1993an ireki zen zirkulaziorako eta honek sarrera zuzen bat eman zion 27 industrialdeari.

1997an 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkarteak eratu zen, egun oraindik ere industrialdearen hobe beharrez lanean diharduena.

Ugariak dira egun industrialdean kokatuak dauden enpresak eta zerbitzuak, korporazio handia, ertainak eta txikiak aurkitu ditzakegu bertan.

27. poligonoak, enplegua eta aberastasuna sortzeaz gain, Donostiako eta eskualdeko garapen ekonomikoari laguntzen dio. 27. poligonoa etengabeko bilakaeran dago. Enpresa berriak instalatzen dira urtero, zerbitzuen eskaintza zabalduz.

27. Poligonoaren indarguneetako bat bere kokapena da, hiriaren baitan. Horren jabe izanik, bertako elkarteak industrialdeko azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzeko hainbat ekimen egiten ari da, eta horrek bermatuko du industrialdearen hazkundera eta garapena epe luzera.

Baina egia da ere, industrialdean dagoen enpresa eta zerbitzu ugaria dela eta, trafiko handia sortzen dela bertan. Auto eta kamioi ugari joaten dira egunero industrialdera lanera, eta horri industrialdean

sortu diren bestelako zerbitzuen erabiltzaileen joan-etorria gehitu behar zaie eta azken urteetan kokatu berri diren bi gasolindegia.

Erabiltzaile gehienak autoz joaten dira, eta autoen zenbakia ugaria da, bai joan etorrian eta aparkatzeko. Baina badira ere oinez, bizikletaz eta autobusez joaten direnak bertara. Hala ere, egun industrialdeak oinezko eta bizikletentzako duen espazioa oso txarra da eta ez da batere irisgarria.

Honek guztiak auto-pilaketak sortzeaz gain, arrisku egoerak sortu ditzake bestelako erabiltzaileentzat. Urteak daramatza egoera honetan 27 industrialdea, eta badirudi, egoera okerrera egiten ari dela azken aldian.

Horri buruz galdetu genion Udal Gobernuari eta honen etorkizuneko plana zein zen jakin nahi genuen. Baina Udal Gobernuaren aldetik, ez genuen zehaztapenik, ez konpromiso zehatzik jaso.

Udal Gobernuak onartu zuen eta HAPOaren aurrerakinak horrela jasotzen du, eremua urbanistikoki berrantolatu behar dela eta berrantolaketa horren baitan egongo dela mugikortasunaren antolamendua ere bai.

Hala ere, Udal Gobernuak oztopo gisa jarri zituen bertako eremu batzuk pribatuak direla eta egun duen osaera: enpresa eta eremu pribatuek, hauen sarrerek, espaloi txikiak... edozein antolamendu berri (bidegorria, esaterako) zailtzen dutela eta oso konplexua dela.

Auzian utzi zuen ere enpresak beraiek eta 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkarte bera direla lidergoa izan behar dutena.

Baina horrek ez luke horrela izan behar, eta hori baieztatzeko, legeak eta planak baino ez dira aztertu behar.

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko legea dago, non bertan 32. artikuluan adierazten da, txanda bakoitzean 100 langiletik gora lanean dituzten lantoki pribatuek lantokirako garraio plan bat izan beharko dute, zeinak barne hartu beharko baititu garraio publikoak edo ordezkoko ibilgailu pribatuak erabili ahal izateko neurriak.

Bestalde, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planean irakur dezakegu, lantokietarako mugikortasun jasangarriko gidalerroak daudela ziurtatuko dela 500 langiletik gorako poligonoetarako, bai mugikortasun-plan propioen bidez, bai hiri-mugikortasun jasangarriko planetan sartuta, eta hori, Udalek finantzatu beharko dutela.

Hortaz, legeak eta planak esku artean, eta nahiz eta 27 industrialdeko mugikortasuna konplexua izan, argi dago neurriak hartzeko garaia dela.

Bertaratu baino ez baita egin behar, eguneko mugikortasuna “kaotikoa” eta erabat desordenatua dela ikusi ahal izateko.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, 27 industrialdearen mugikortasun-azterketa edo diagnostiko bat egin dezala 2026ean zehar, zeina, etorkizunean egin beharreko berrantolaketarako proposamenean kontuan hartuko den.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, behin mugikortasun-diagnostikoa izanda, 27. industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkartearekin lankidetzan industrialdearen eraldaketari eta haren mugikortasunari buruzko hausnarketa prozesu bat abiarazi dezala.

Donostian, 2026ko otsailaren 20ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia